

Nolako jarrerak Ipar Euskal Herrian antropologia sozio kulturalaren ikuspegitik XX. mendean

(Positions in the continental Basque Country on socio-cultural anthropology in the 20th century)

Pagola, Manex
Eusko Ikaskuntza
Faculté Pluridisciplinaire
29-31, Cours du Comte de Cabarrus
F64100 Baiona

Euskal Herri iparraldean ere hogoigarren mendean gertatu diren aldakuntzetaz luzaz beren interpretazioa ekarri digute hanbat eta hanbat "kultura bitartekari"ek, askotan ezin onartuz bidean heldu ziren sozial eta kultura sozial berritzapenak eta berdin euskal kulturari berari dagokionez, berdin zenbait atzerapen fagoratu. Ikusi behar nun finkatzen zituzten beren jarreak. Zorionez, mende bukaera aldera bederen etorri da antropologia sozio kulturalaren ikuspegia, mendean zehar gertatu aldakuntzek eta hauek ekarri gatazka eta oreka berrien hobeki ulertzen laguntzen ahal duena.

Giltza-Hitzak: Aldakuntza. Urbanizazioa. Erakundeak. Modernitateak. Gatazka. Mestizaia. Abertzaletasuna. Erlijioa.

Numerosos "intermediarios culturales" han aportado durante mucho tiempo sus interpretaciones a los cambios sucedidos en el norte de Euskal Herria, sin aceptar, en muchas ocasiones, las innovaciones sociales y culturales que con ellos llegaban, e incluso abogando por determinados atrasos. Habrá que ver en qué fundamentaban sus posturas. Afortunadamente, a finales de siglo apareció la perspectiva de la antropología sociocultural que puede ayudarnos a comprender mejor los cambios acaecidos durante el siglo, los conflictos producidos y los nuevos equilibrios.

Palabras Clave: Cambio. Urbanización. Institución. Modernidad. Conflicto. Mestizaje. Nacionalismo. Religión.

De nombreux "intermédiaires culturels" ont interprété, pendant longtemps, les changements qui se sont succédés au nord d'Euskal Herria, sans accepter, bien souvent, les innovations sociales et culturelles qu'ils apportaient, et même en plaidant en faveur de retards déterminés. Nous examinerons sur quoi se basaient leurs attitudes. Heureusement, à la fin du siècle apparut la perspective de l'anthropologie socio-culturelle qui peut nous aider à mieux comprendre les changements qui ont eu lieu durant le siècle, les conflits qui se sont produits et les nouveaux équilibres.

Mots Clés: Changement. Urbanisation. Institution. Modernité. Conflit. Métissage. Nationalisme. Religion.

Giza zientziak, orain hain segur orotan, asko eta asko aintzinatu edo aurreratu direla, lehengo “etnologia xola” zeritzaion jakintza zinez indarberritzen ikusten da ipar Euskal Herrian ere, bederen gaur egun: hemen ere giza errealitate sozio kultural oro bere itxurazko osotasun guzian zientifikoki inguratzeko egokitua edo gertua, berdin soziologia eta historia garaikidearen bidetarik bezala antropologia sozio kulturalaren sailetik bereziki. Guk, uste dugunez, jakintza honi dagokio halere gehienik, erabiltzen dituen ikerketa metodo berezien gatik, aldakuntza sozio kulturalen ingurua hurbilenetik egitea, haatik beti beste jakintza bideen ekarpen zientifiko oro baliatuz ahal den neurri guzian.

Hortakotz, neholaz ere oraino bukatua ez den antropologia sozio kulturalaren historian eta egitekoetan, hogoigarren mendearen ekarpena aski ohargarria izanzen bide da, gaur egun, mundu osoan bezala, Euskal Herri osoan ere. Berdin Euskal Herri iparraldean, hemen ere soziologiari eman izan zaion lehentasuna dela eta, izan duen ahultasuna oraino nabaria balinbada ere. Hargatik euskal izateaz eta bilakaeraz herrian dagoen ulermena oraino aski motxa, ez erraiteko, traketsa gertatuko zaiku beharbada oraino luzaz.:

Guk lan honetan ipar Euskal Herriaren lurralde-tasun geografiko eta historiko osoa kondutan hartuz, landu nahi gendukena da, bereziki, nolako bilakaera nagusiak izan diren mende batez, XX. garnean, bereziki kultura alorrean, ongi dakigularik mende bat zoin den luzea eta XX. garnean bereziki zoin aberatsa lurralde honetan izan diren aldakuntza sozio ekonomiko garantzitsuen aldetik. (Modernitatean abiatzea eta sartzea, baserrien hustea, kostaldearen eta barnekaldeko gune batzuen nasaiki hiritartzea, irakaskuntza, formakuntza eta komunikabide berrien hedapena eta abar..) beti buruan atxikiz halere *iparraldea* deitu lurraldea nolako menpekotasunean dagoen hanbat sailetan, zuzenki eta gain behera agintzen dion frantses Estaduaren (eta orain geroz eta gehiago Europaren) aldetik. Iparraldeak ez baitu administratiboki ez eta beraz juridikoki izaerarik batere. Ez legezko herrialde, ez departamendu, ezer bere osotasunean: Bakarrik Lapurdi, Baxenabarre, Zuberoako eta B.A.B. aldeko herri eta hirien batuketa xoil bat baizik. Frantses Parlamenturako deputatu hauteskuntetako bereko IV. zirkunzkripzioan edo berdin Akitania eskualdeko hauteskundeentzat Beamesekin nahasi behar baitu, bereziki, demagun Olorue edo Oloron aldekoekin.

Nola ulertu edo konprenitu hau guzia? Zer dio egoera honetaz antropologia sozio kulturalaren ikuspegiak?

Lurralde hau, denek dakigun bezala, frantses Estaduaren hego mendebaldeko izkin batean hartua zenbait mende eta mende hauetan eta kanporako edo haremanetarako idekidura askotarik moztua ikusia izan da maiz XIX. eta XX. Mende arte hortan ere oraino. Hego Euskal Herrian, diktadura frankistaren bukaera arte (1977) goi ikasketak nagusi zentro librerik edo egiazko unibertsitatetarik

gabe direlarik oraino eta gainerat Hendaia, Dantxaria edo Arnegiko mugetarik iragaitea aski zaila denbora haietan. Beraz Euskal Herriaren zati handienetik beretik aski bereber, bazter utzia bezala dago XX. mendearen azken laurdena arte hurbil ipar Euskal Herria. Gisa horretan lurralde honek ez du frantses Estaduaren hego mendebaleko “xoko ttipi pollit” baten tokia baizik izanen.

Eta hau zinez azpimarragarria, frantses izaera baizik ez dela hemen ofizialki, egiazki kondutan hartzen! Alabainan denen gainetik daude beti, kasik bakarrak bezala, frantses hizkuntza, Frantziari lotu historia, honen literatura, honen giza joera nagusiak eta abar

Zer kultura politika da hau Errepublikak demokratiko baten baitan? Ez kanore handikoa, hain segur!

Segur halere, kurutzamen motz zenbait ukaiten ahalko dituela halere ipar Euskal Herriak kanpoarekin XX. mende erditsua baino lehen ere (hego Euskal Herriarekin –Nafarroa, Gipuzkoan, mugaz gaineko herritarren artean aspalditik izan artzain eta tratu haremenak, berdin ezkontzak, berdin zabalagotik 1936 eko euskal iheslarien bitartez bai eta ere euskal kostalde osoan ekonomia eta kultura sail labor batzuetan) bainan bereziki frantses Estadu aldera, hareman erretxenen bideak alde horretarat izanik –delako Akitanian gaindi– Paue eta Bordele aldekin. Hemen dira garatuak alabainan administrazio gune tarr handiak, bai eta Bordelen bezala komertzio eta industria indartsuak eta ere unibertsitateak: beraz hauekin lotuak diren teknika nasaik. Ondorioz, lan eske, ipar Euskal herri-tar asko bertaratu baitira andana handika bereziki II. garren mundu gerraz geroz, 1946-1950 urtetarik honarat, goi ikasketetako ikasleek ere bide bera hartzen dutela, nahi t’ez, Bordele, Tolosa (Toulouse), Parise alderat. Hots, estadu eraikiduren bote-rez eta nahit’ezko bidez....

Ikus dezagun ere XX. mendearen lehen hiru laurden aldera hurbil, ipar Euskal Herria *Lapurdi, Zuberoa eta Baxenabarre* izenekin hain aspalditik ezagutuak diren lurralde historikoekin –halaber aski gaskoina den B.A.B. alde (Baiona, Angelu, Biarritze) hiri multzoarekin– tokiko edo bertako jendetaz beretz bederen aski osatua agertzen zaigula denbora haietan. Nun ez den, egia erran, industri gune berezietan, gehien bat kostalderat buruz, hemen mail oneko kargu eta enpleguak Euskal Herriaz urrunagoko jendeak baitituzte askotan betetzen beren sor herrialdetan bildu jakintza eta kompetentzia egokier esker Toki aintzinatuagoetarik heldu, dudarik gabe! *Euskaldunak* edo *Les Basques* deitu horiek aldiz, halaber *Gaskoinek*, gutiz gehienetan, lan xumeagoeri ari beharko baitute, berdin ahal den langunetan. Zinez askotan indarkako lanetan edo eskulangintzan. Bainan horra nun ere, denbora berean, zabaltzen hasiak diren bereziki lehen mundu gerlaz geroz, indar fisikoen bidertzeo ahal berriak (mekanisazio, eletrizitate eta motorreria hedatze, berribilen eragina ahanzi gabe), ez baitira hauk guziak ondorioz gabe izanen tokiko gizartea-

ren aldakuntza sakonetan. Aldakuntza handien bideak beraz ipar Euskal Herrian ere. Eta nolako aldakuntzena!

Halere, “Euskal Herri iparralde” edo beste hanbatek aipatzen duten “Frantzia zolako lurralde xoko hau” ez da hasteko, neholaz ere, egiazko berezitasunik ukan gabe, dela Euskal Herri hegoaldearekin, dela Frantses Estaduko beste eskualde batekin alderatuta ere.

Frantses espainiol Estadu-mugatik ez urrun, bere iraganeko, garai hurbileko eta orai-ko izaera nolazpaiteko euskaltasunean eta, parte, gaskoineran ere hartua. Baiona, Angelu inguruko gune berezietan, orain”iparralde” deitu lurralde eta jendetzak badu nortasunik bere kultura sare berezian oinarriturik, hortakotz baita eremu hauta antropologia sozio kulturalak hor ematen ahal duen begirada sakonarentzat. Zeren ere, dena berritzapen eta aldakuntza handitan sartua baitzaugu. Adibide bat bera emaiteko, inoiz izan ahal da iparraldeko kostalde aldean oraiko jende metatzerik, ipar Euskal Herriko jendetzaren laueterik hiru orain, betbetan bezala, hor bizi denaz geroz!

Etnia bat izaitea uste izaitetik..

Lehen hurbilketa batean, hogoigarren mende erdi inguru arte, etnia multzo baten ezaugarrietan kokatua zela zirudien beharbada askorentzat ipar Euskal Herriko zati gehienak: Alde batean euskarazko hizkuntza nahiko bizi oraino, –salbu halere hirietan–, jende gehiena erlisio urrats berdintsutik ari, eliza katolikoaren eraginez, ohiduretan nola ausagailuetan edo aisialditan ere oraino XIX. garren mende ondarrekoetarik ari (pilota joko, musa eta abar), Elizaren inguruko aisialdietako aktibitate zenbaitekin (*patronaiata*ko antzerki, dantza, kantu eta abar..), ezkontzak ere endogamia handi baten bidetik zoatzila. Alde horietarik behatu eta etnia multzo bat iduri ikusia zen ipar Euskal Herria. Bainan nun emaiten da lurralde hortan berean dugun aspaldiko gaskoinen izaera? Biztanle gehienak bertako seme alaba, hizkuntzaz eta erlisioez aski hurbilak, beraz kulturaz elkarri aski lotuak, iduri etnia batean bezala. Bainan berdin erran zitezkeen ipar Euskal Herri hortan berean, guziz Lande-setako auzo alderat ditugun gaskoin kulturakoentzat (hauk beti B.A.B. hortan eta hunen inguruan jarriak orain aspalditik, bost edo sei mende hautan segurik!).

Bainan noiz arte irauten ahalko dute egiazki batzuen eta besteen izaera edo itxura hauek? Eta bada iparraldean jenderik idazletan, olerkarietan, kantarietan, pertsularietan, kazetarietan, artistetan eta abar.. errealtate hori erabat edo osoki euskal kutsukoa eta ezin aldatua bezala ikusi nahiko duenik. Alta itxura hau guzia –ipar Euskal Herriak nunbait hor XX. mende erditik hunarat hartuko duena– aski aldatua izanen da orokorki, bereziki XX. mendearen azken laurdenetik honarat, nun ez den berdin ezabatzen bezala geroz eta gehiago. Bainan bertze zerbaiterik aldatzen, bertze kultura errealtate

te batez janzten, segur; nehor gutik itzuli nahiko bailuke halere egiazki iraganeko bizi moduetarat! (Erran nahi baita iraganeko nekezia askotarar: bizi xuhurrerat, bizi tinkirat eta abar..).

Dudarik ez da, gisa guzitako aldakuntza material handitan hartua dela orduan lehenik –eta geroz eta gehiago– ipar Euskal Herria, ez baita harritzeko horien ondorioz ohizko bizi sozio kulturala geroz eta bestelakatuago agertzen bazaigu. Ez axaetik bakarik bainan barne baretik hain segur; ohizko euskal eta ere gaskoin kulturen erroetan beretan.

Bainan zer itxura ematen zuten, adibidez, denbora edo garai haietan beretan “erudito” edo delako “jakintsunek” euskal kulturaz, Euskal Herriaz, Euskaldunetaz edo Euskotarretaz (eta ere, zendako ez, Gaskoinetaz?) hain nasai mintzo zirenak: apez, erakasle, kazetari, jende ikasi, idazle eta abarrek? Egia erran lehenik biziki eskasa. Adibidez, Gaskoinetaz ezer guti, iduri ez dituztela ikusten edo ez ikusi nahi ere!

Aski ezaguna da Edward Tylorek jada 1871 an arriskatu zigun kultura ororen definizio bat ona:

“Kultura edo zibilizazioa osotasun konplexu edo korapilatsu batera biltzen da, hor sartzen baitira jakintzak, sinesteak, arteak edo edergintza, legeak, morala, ohidurak eta beste hanbat ahal edo ohidura gizonak gizarte bateko kide bezala biltzen dituenak..” (Erdaratik euskaratua)

Bretainian, adibidez, hemen Euskal herri iparraldean Gaskoinak bezala, haiek *Gallo* hizkuntza erako jendeak dituzte Bretoinen artean eta Bretainia ko lurraldearen parte direla ez dute ukatzen. Nolaz ez gure iparraldean Gaskoinak ere berdin? Alta ere hareman asko dutelarik Euskaldun edo Euskotarekin gisa guzitarat, lanean, ezkontzaz eta beste molde askoz. Elkarri esku ematen ez dutelakotz jakin hain segur beste ikerketa batean ikusi beharko bailiteke zergatik horrela gertatu eta gertatzen den hau guzia.

Batere ez etnia izatera...

Jada errana dugu ipar Euskal Herrian ere aro berriak edo modernisazioa nola diren bidertu guziz XX. mende erditik honarat, herrialde guzia zinezko aldakuntza baten bidean sartuz. Ez da beraz gauza nekea izanen Tylorek kulturaren osagai ematen dizkigun alde edo elementu gehienak ipar Euskal Herrian ere guziz aldatu direla ohartzeara, ondorioak aski nabari edo ageri gertatzen direla zinez orain bederen sail askotan, adibidez erlisio urratsen jarraipen tipituan, euskararen edo gaskoinaren erabilpen ahulduan, berdin ohidura asko galtzeraino edo ta berdin, adibidez, etxegintza molde berrietaraino, jendearen ohizko bizi molde gehient-suak aski bestelakatu. Beharria beti karrikari atxikiz eta bi hitzez aritzeko: “Nor da orain lehen bezala bizi?”. Eta, egiaz, ez ote da hau guzia askitto aspaldi hasia?

Aldakuntza horiek nola diren beren denboretan ulertu edo konprenitu, hori izanen da hain xuxen lan

honetan, alde batetik, gure galdera nagusienetarik eta bestaldetik zertan finkatzen edo oinarritzen den Euskal Herri iparraldean –elkarrekin bezala bizizdugun euskal, frantses eta gune batzuetan gaskoin moldez ere –eta beraz hiruekilako izaeraz-osatua den sozio kultura egoera antropologiaren bidez argitan ematea..

Gauza jakina da iparraldeko kulturaren baitako azken aldakuntza horiek denetan bezala, beren erroak bizi sozio ekonomiko beritu batean dituztela. Geroz eta argiago da ere iraultza sakon baten atarian edo aintzinean bezala jartzen dutela antropologia sozio kulturalak hor izan behar duen behako berria. Bainan noiztik egin da horrelakorik ipar Euskal Herrian? Nolaz hain erreski ikusten dira oraino XX garren mendean zehar eta mendearen azken laurden alderat ere berdin, batzutan, iragane-ko “cliché” batzueri beti lotuak diren idazle, pentsalari, artista eta beste gisa hortako jendeen joerak? Beti, aspaldiko etnia bat garelakoaren ametsetan bezala. Nolaz hori?

Dudarik ez, iragan ez hain urrutian edo urrunean, XIX. mende ondarrera, literatura erromantikoak, hala nola Pierre Loti batek naturaren eta indibiduo edo norberaren miresteaz edo exotismo xedez eskualde ttipi handieri eman dioten berezitasun bortxatuak ez direla eraginik gabe sail hortan eta hori aski luzaz ipar Euskal Herrian ere. Alabainan, historia orok bere pizua edo karga! Frantses Errepublikak hedatu indibidualismoaren eragina, Eliza katolikoaren denbora bateko erakaspina: Hau ere ez ote zabilan hain askotan “arima bakarren” –nork bere– salbamenduaren edo salbazioaren ondotik? Eta beste sail batera joanez, gure kostaldean edo itsas bazterretako jabek hainbeste itsaso eta etxelur saldu behar zen urtetan ez ote zen ere aski gozo eta bereziki hoi moltsarentzat emankor Euskal Herriaz zenbait himno exotiko kantatzea, baiziketa hemen bazterrak eta jendeak hain berezi, ezin aldatuak eta denbora berean harrigari eta betierekotasunez jantziak bezala zirela ikusliarri erakustera emanez? Kasik ordukotz, oraino publikitatearen bidetarik bezala! Xinplifikazioaren lege, ipar Euskal Herria oro euskal izaerako bezala agertzea, gaskoin izaterik ere aipatu gabe edo euskal izaerak bere inguruarekin nehoiz haremanik ukan ez balu bezala, azkenean hain harrigariak balire bezala euskaltasuna eta Euskaldunak eta kasik betierekoak eta beraz orori nausi!

Hau mitoaren landatzea eta iraunaraztea! *Euskaldunak* eta *Euskal Herria* beste jendalde eta herrialde tarik luzarako “aparte” edo “berex” ezarri!

Ez ote zaukun ere jada horrelako zerbait errana hanbat aldiz Loti-k *Ramuntxo* bere obran:

“Gure arbasoek hainbeste eta hainbeste gizalditan beti berdin egin duten bezala eta itsutuki beti fedezko hitz berdinak erabiliz, hori da zuhurtzia gorena bai eta indar handiena.”, (Erdaratik euskaratua)

Aldakuntza handien mendean sartzerat joanik ere, hora beraz lehenik *tradizioa* edo *ohidura* goratuak, ez baitute besterik eginen Ramuntxoren obra

agertzen den urte berean, 1897 an, Donibane Lohitzunen hain ospetsuki idekiko diren *La tradition au Pays Basque* (Ohidura Euskal Herrian) deitu egunek.

Aldakuntzen bidean

Gauza ageria da urteak eta urteak beha edo zai egon beharko dela ustez ezin aldatuzko ohiduraren baitan zagoen Euskal Herri hortan aldakuntza handiak jada bidean zirela ohartzeko. Alabainan jende bat hemen ere beti iraganari hain atxikia beste hanbat gizarte zaharretan bezala, “arbasoen hitza” berme! Claude Lévi-Strauss-ek Australian ibili etnologo baten lanen komentarioa egitean 1962 an erraten deraukun bezala:

“Guretzat ere ez hain aspaldi, beste sail batzuetan izan den bezala, aspaldikotasuna eta jarraipena (beti berdin edo gauza berak egitea) dira gauzak bidezko izatearen oinamiak. Eta aspaldikotasun hori da batezpadakoa, zeren munduaren hastapenera baigeramatza eta jarraipen horek ez baitu onartzen ez aldaketarik ez mailik”. (Erdaratik euskaratua)

in *ethnologie anthropologie*. Philippe Laburthe
Tolra-Jean Pierre Warnier PUF, Parise 1993, 238 or

Bainan nola uka aldakuntzak ditugula hoigoigaren mendean ipar Euskal Herrian, bereziki tresneria berri mailan bezala eguneroko bizitzeko moldean berean eta nolaz ez bereziki hiritartzearen bidean, hiriguneak direlakotz kultura aldagune lehenak. Ez ote dira hemen ugaltzen jendeen arteko harat hunatak eta beraz nahi t'ezko haremanak, hirian askatzen nolazpait nor berak bere etxeko edo ahaide edo herriko ezagun hurbilen ganik beti kasik gainean duen behako edo begirada eta kontrola? Anonimato komodos bat ez ote da ere hirietan erregela bihurtzen? Bestalde –eta bereziki– hirian edo haueri hurbil direlakotz lantegiak eta hauek jendartean dakarten “lanaren zatiketa soziala”k berak ez ote du kultura orokorra deitu hortaz beste irakurketarik egiterat edonor bortxatzen? Adibidez nagusiak edo hauen ordezkioak ez direla langileak edo hauen idunikoak bezala bizitzen! Eta badela ere ofizio bezanbat bizitzeko era. Hain xuxen, ipar Euskal Herri gehiena oraino % 80an urbanisazioaren bidean emana zaigula XX garren mende hastetik laster abiatu mekanisazio berriaren boleiaz. Ez ote ziren bederen, iduri ohizko (eta betiko) ikusiak ziren euskal eta gaskoin kulturen zutabeak berak jadanik aski lehertuak ageri kasik ordukotz Lapurdi bazter aldean kostalderat buruz bederen? Hala nola euskal kulturaren kasuan sor etxearen, elizaren eta euskal hizkuntzaren garrantziak jadanik handizki bestelakutzen ari zirela emeki emeki, lehenik kostaldean, ondotik geroz eta gehiago bamekalderat buruz

Kultura bitartekarien denborak

Egoera berri honek ez du hanbateko behako berri sortuko. Denen gainetik bezala, hauxe dio, adibidez, Jean Barbier euskal apez eta idazle ospetsuak 1926 an, nihun ez dela ageri zertaratuak diren edo zoin kulturako bilakatuak sor etxeari edo elizari edo euskarari arrotzuek direnak eta hau arrazoin ximple baten gatik: baserri aldetik lan eske

hirietarat joan direlakotz eta hor alabainan egoitza xoil hertsu batean bizi behar, euskararen ordeztasun frantsesetik *kiskun kaskun* ari beharrek, elizako urratsak ere hirian baserrian baino beka beka direlarik, karriketako hainbeste joan jin eta arrabotsen artean aski balio gabetuak.

“Zerk egiten du euskaldun bat zinezko euskaldun bat dela? Etxeek, hilariek eta hizkuntzak. Horietan da kausitzen euskal arimaren muina.” (erdaratik euskaratua)

J. Barbier. *Gure Herria*, 1926

Argi ikusten denez, hirian bizitzeak ez bide zuen garai haietan horrelako hizlariarentzat begirune handirik eta hor, adibidez, euskal senakoa are gutiago euskalduna izatea ezinezkoa bezala ikusia zen erexki. Nor menturatu behar zen ere ordu haietan hiri aldeari behatzerat? Hain galbide ziren tokietarat? Beti, Pierre Lotiren arabera, *Ramuntxoren* obran dion bezala:

“Ez! diogu hiriar bere etxe metarekin, bere barne ihauri betekin. Ez du emaiten hor zure etxean sartzen zarela, elkarrekin tinki biltzen ahal dela arasetan aspaldiko denbora haietan bezala, nola hemen, euskal teiltatu bakarti hauen azpian, baserrien erdian”. (Erdaratik euskaratua)

Lotiren ondotik, 1907 an, Pierre Lhande aita jesuitak haratzago derama egiazko Euskaldunen partetik hiriat bizitzerat joaitari, zinez, dion aihergoa, diolarik *Autour du Foyer Basque* edo euskaraz (euskal sudondoaren inguruan) deitzen ahal liteken liburuan:

“Maulen haresiz inguratu dituzte uhaitz kantariak. Lantegiak egin dira. Lantegiak lurrari kendu nekazarisa edo laborarisa gaztez bete dira.... eta modak eta hirietako erretasunek neska gazte sano horietaz pika buztan xoro batzu egiten dituzte nun ez den oraino bertze zerbaitek...” (Erdaratik euskaratua)

Baigomi Etxauzeko andreak ere “Causeries sur le Pays Basque” (Euskal Herriaz zenbait solas) deitu obran haxe zerasan deplauki:

“Hirian familia barreitzen da; haurrak karrika dantzan dabilta. Urrun gare hor Jainkoaren gauzatarik. Hirian hostokatzen den liburua, liburu gaixto bat da, gizatasun galdu eta koro(r)rik gabeko liburua. Ez joan ihesi alor landetarik!” (Erdaratik euskaratua) eta haratzago:

“Gure arbasoentzat aski zena aski da haurrentzat” (Erdaratik euskaratua)

1930 an, Gaetan Bernoville idazleak ere *Le Pays des Basques* (Euskotarren Herria) deitu bere obran erraiten digu:

“Nekazaria edo laboraria Euskaldun bat da. Arraza lur lanetarako eta artzaingorako da.” (Erdaratik euskaratua)

Gaetan Bernoville. *Le Pays des Basques*. Horizons de France. Paris. 1930. 29or

Jean Pierre Inda apez beneditano jakintsunak ere bere iritzi badauka:

“Segur, Euskal herriak beste herri guzietan bezala, bere esku langile, komertzianta eta jauntxoak dituela...Bainan hemen da arraza kotsatu gabekoa, bere berezitasun guzia zaintzen duela patarretan edo aldatan dauden etxe horietan”. (Erdaratik euskaratua)

Beste sail batean, hala nola margolarien artean balinbagoatzi, baserri itxuraz eta erromantisismoz jantzi ikuspegi berdintsuekin aurkituko gara Mayi garay, Arteta edo Arrue anaien margoekin, adibidez. Eta nork uka Ramiro Arrue batek, adibidez, iparraldeko hanbat marrazki eta itxuraketetan luzaz izan duen eragina edo garrantzia? Badakigu margolari hauk denek Pariseko “atelieretan” ezagutu Puvis de Chavannes eta Gauguin margolarien joerak zenbat beretu zituzten, hauk beti lurraren itxurazko edertasunari soilik atxikiak, iduri eta hor bederen –hirietan ez bezala hain segur– lasaitasunik eta miresterik baizik etzen izaiten ahal!

Olerki mailan Francis Jammes bat bera, adibidez, ez ote zen hau ere ikuspegi berdintsutik ari? Hau hainbeste urtez Hazpamen egona!

Zinegintzan, hala nola 1950 inguruan, Hazpameneko Madré jeneralak agertu zuen “Sor Lekua” dokumentariak ere zer ematen digu ikusterat? Gure mendi eta baserrien ederra bere belar epaile, ardi eta behiek, denen edertzeko hanbat elizkizun hungarari jartzen dizkigula: bataio, ezkontza eta hiltze elizkizunak. Bainan hirietako biziaz zer? Euskaldunik edo euskotarrik ez ote ginuen hor? Hain segur, jada doi bat iragana den denboren (nahiz beti ipar Euskal Herri mota baten fagore), Baiona batean ere beti ezin osatuz ari zaigun Euskal Museoak ere zer ikuspegi hedatu ote du azkenean orain oraino euskaldungoaz, Euskaldun desberdinen biziaz eta abar...Nun ditugu hor ere hirietako euskal biziaren aldeak: horgo etxegintza, festa, ohidura askoren hatzak, Biarritzekoak, Donibane Lohitzunekoak, Hendaiakoak, adibidez. Itsas biziaz beraz ere zer hain ohargaririk 1978 eko urte alderat arrantza sala jakingari bat eraiki arte?

Philippe Martel antropologoak Mistralek Probenztan abiatu Félibriges deitu idazle eskolaz ari delarik haxe derauku 1988ko *Ethnologie française* aldizkari ale batean:

“Felibreen mintzaldiek edo diskurtsoek berexketa bat egiten dute amestu herri baten eta egiazko herri baten artean, lehena tinko itxuratu nekazaritza bat baita bere ohiduren zaintzeari zinez emana, bigarena aldiz mundu modemoaren lillureri amor emateaz hobendun, bere hizkuntza galduz, lurrari ihesi hirietako zepoetarat joanez. Mistralen hitzaldi asko, izaitekotz ere, hirietako lilluren edo, izaitekotz, hirietako ustelkerien gaitzesteko eginak dira.” (Erdaratik euskaratua)

Hain xuxen, mintzaldi edo diskurtso egileak gure herrietan ere jende ikasi edo “erudito” hoietarrik izan ohi dira. Gehienetan idazle edo mintzalari onak, edozertaz hitzegitera errexki ekarriak, antropologia sozio kulturalak “kultura bitartekariak” deituko dituenak. Zeren herri xehearen eta agintarien arteko bitartekaritza gisarat ariko baitira gehienetan beren idazki lanetan, bereziki jakintzak eta komunikabideak ahul diren herrietan. Eta nundik ez da

bada mail hortan izan –eta egon– hain luzaz ipar Euskal Herria, jada erran dugun bezala, bereziki garai batean, demagun XX mendeko lehen erdialdea iragan arte, Unibertsitate ikasketa faltan bereziki, kasik *diskurtso zientifikorik* gabe.. *Kultura bitartekari* hoiek beraz, beren jakintzaz aski jaun, lehiatuko dira dakitenetik zerbaiten emaiterat beren azpiko jenderi, bainan hauen ganik bekan zerbait ikasterat. Zeren *bitartekari* hoientzat jakintza goitik emaiten den hazkuri bat baizik ezin izan! Hori bera dio Christian Desplat historialariak Zuberoko Jacques de Belaren idazkietaz ari delarik, hor baitio argiki ez dela holakoekin nehoiz ahantzi behar nor den mintzo dena eta zertako mintzo den, nori buruz ere. Zeren *bitartekari* hoi en erranetan aurki baititake “gauzen beste alde bat...aski laburra eta interes batzuetarat bildua”. (Erdaratik euskaratua).

Christian Desplat: “Jacques de Belaren idazkiak: XVIII. Mende hondarreko kultura giroa zuberotar jaun-
txo baten arabera” in: *Processus sociaux, idéologies et pratiques culturelles dans la société basque*. Pierre Bidarten zuzendantzapean. Pau eko eta Aturi aldeko Unibertsitatea. 1985.12 or

Horra beraz noren esku egon den hogoigarren mende erdirarte segurik euskal sozio kulturako biziaz hitzegitea. Eta gorago izendatu ditugun idazle eta artistek beren eskualdea zutela ere errexki asma diteke, erran nahi baita gehienetan herri gidarien edo arduradunen, nagusien eta Eliza katoliko ofizial mota baten eskualdea, hor ere ez baitira batere faltatu ideologia ikuspegiak. Horra zergatik hain goraiatuak ikusiko dizkiotegun bereziki euskaldun izaiteaz dituzten ikuspegiak, berdin ere zergatik duten hanbat fagoratu basemia, denbora haietan hortik ihesi baitzoatzen multzoka laborari seme alabak hiriko soldaten eta bizi erretxagoaren ondotik. Lur eta etxalde jabeak hortaz aski kezkatuak!

Labur biltzeko, gizarteko ordena berezi bat, betikoa bezala, zaindu behar zela, baitezpada eta errealtatea hortarat bihurtu. Zuzenez bestaldera izan beharko zukeelarik.

Bainan holako ikuspegiekin –eta dena euskal izaite rat bakarrik bilduz, Gaskoinik hor berean hurbil hurbila badenez ere aipatu gabe– ez ote zen ipar Euskal Herriaren izaite sozio kulturala handizki mugatzen? Zergatik bereziki hainbeste aihergo baseritik hirirat joan jendeentzat edo baserri lanez besterik ere itsasoetan arrantzan egiten zutenentzat? Zeren euskal kulturaz, halere hain amultsuki eta nasai ki erranak, beti gai berdintsuen inguruan baitzabilzkaten, jada Jean Barbier-batek zion bezala, dena euskal hizkuntzaren, Elizaren eta baserriaren inguruan ibilaraziz eta... gaskoin izaerarik aipatu gabe, alta hautarik asko direlarik bereziki Baiona, Angelu aldetan.

Ikuspegi motzak

Aitortu behar antropologia sozio kulturalaren ikuspegitik hau dena aski motz gelditzen dela halere XX mende erdirarte segurik.. Kultura bat herrialde jakin batek bere eremu ezagunetan bizi duen

egoera orokor baten seinale balinbada –nahiz beti aski konplikatu edo korapilatsua izan–, badirudi behari gutik duela *kultura bitartekari* hoi enaz beste ikuspegi orokorrik agertu, giza errealtate guziaz bere nahit ezko aldakuntzekin behar bezala inguratu-tuz.. Alta, jada errana dugun bezala, iparraldean euskal etnia baten ezaugarri omen izan zitezken alde gehienak berak joanak dira: biztanleak berdin nundik nahitik etortzen hasiak, beraz tokiko jendetza aski nahastikatua bezala, euskal eta gaskoin hizkuntzek toki askotan beren bizia ahuldua, erlisio katoliko zaharra ere gune askotan indargabetua. Nolaz ariko da halere, oraino, iparraldeko euskal literatura gehiena euskaltasunaz gehienik, ipar Euskal Herri oro etnia gisa ikusi behar balitz bezala? Alta, ikusten denez, honen eremuak hain inarrosiak direlarik, toki askotan bere ohizko izaera bereziak (euskal eta gaskoin kutsukoa) berdin errexki frantses izaite hutsari jariak eta... beren gisarat utziak hirixka ttipienetan beretan!

Ipar Euskal Herriko sozio kulturazko biziaz ez ikuspegi xuxenik ez orokorrik beraz denboraldi luze hortan. Ez ere, egia erran hortarako laguntzarik ere unibertsitateetik eta orokorki botere publikoen ganik ere! Izaitekotz ere elkortasuna eta esker txarra! Euskara edo gaskoina berdin beti eskoletan debekatuak, (hiriko elizetan doi doia onartuak), halaber komunikabide handi gehienetan, hots ipar Euskal Herriaren berezitasun ikusgarrienen kondutan hartze mikorik ez, askotan, errateko manean. Aldiz, frantses hizkuntza, gogo eta gaineratikoen bortxa handizko hedamen izigarri bat frantses estaduko eraikidura tinki eta indarko en arabera.

Eta horra orduan euskal kulturakoen artean segurik bide bat, hertsia bada hertsia, euskal nazionalismo bati buruz abiatzen dela, hemen euskal izaeraz segurik zinez ikuspegi berria agertuko baita eta indartuko nola edo hala, hegoaldean euskaltasun horrek berak jasaiten duen zapalketa eta *estig-mata* izigarriaren gainean finkatuz bezala! Frantses Estadu xixtimari hau dena bost axola baitzaio, dakielakotz joera berri hau gutiengo baten gauza baizik ez dela. Halere, *Loi Deixone* deitu 1951eko urtarrilaren 11ko 51-48 zenbakia ekartzen duen legeak ez ote du aro berri bat ideki behar Estaduko mintzairaren alde, lege honen aplikapena aski hurria edo geldia izanzen baita ipar Euskal Herrian ere.

Hogoigarren mendeko azken laurden alde

1965-1975. urte hamarkada aldera, jada abiatu berria den euskal nazionalismoaren xedeak aski argitan dira. Erro berriek xartu egina emeki emeki gisa bat edo besteko ikuspegietan, hala nola 1936 ko urte alderat jadanik agertu *Aintzina* oldearenetan, berdin hegoaldeko abertzaletasun bigun nola bortitz aireak agertzen dituenetan, hau dena aski nabari baita 1963an Lapurdiko Itsasun milako bat biltzarkideen artean abiatzen den *Erbata* izeneko politika olde ausartan.

Frantses Estaduko gizarteaz ere, orokorki, gogoretaldi berrien aroa ere dugu nunbait 1968 eko maiatz famatuaz geroz. Ipar Euskal Herrian ere

baseri aldean hustea eta ohizko industrien leher-
tzea ez bada (hala nola barmekaldean Hazpamen,
Maulen) hoiendeusezte geroz eta nabariagoak
dira. Gazteentzat ikasketen luzatzea bidean jarria
da, halaber kontsumo gizartearen garapena ere
beti eta gehiago handiagotuz doala. Magrebialde
ere galdua du ordukotz Frantziak, ez baita hau ere
batzu eta besteentzat erakaspene eta traumarik
gabe. Gainera, frantses Estaduan bezala munduan
nun nahi iratzartzen hasiak dira “minoriak” edo
“gutiengoak” deitu herrialdeak. Gogoetatze han-
diak hor beraz jende askorentzat. Giza sail batek
baino gehiagok bere aterabideak eskaintzen baititu
nola sindikatetan nola politika sailetan bereziki.

Kostaldean bildua da jadanik ipar Euskal
Herriaren %74. Baiona, Angeli, Biarritze, Donibane
Lohitzune eta Hendaiako kantonamenduek 1975an
148.000 biztanle dituzte. Ipar Euskal Herri barne-
kaldeak 1936tik honaratu %17a galdua du.

Ingurumen berri hortan kokatu behar da nolaz-
pait ipar Euskal Herriak ere ezagutuko duen aldaketa,
mail honetan behar bada gehienik atrebituko diren-
tan izanen baitira nolazpait bertako jendeak ere, eus-
kal burgesia tipi berri batekoak: irakasle, intelektual,
komertziantea, eskulangintzako jende kopuru on bat
Euskal Herriaren garapena askapenaren lema ardatz
harturik, hauk berak frantses Estaduaren aldetik
ezkerreko politika berri baten araren goaitan dire-
nak halere askotan, gutiz gehienek François Mit-
terand en alde dei egiten dutela 1981ko Frantziako
lehendakaritzako bozkaldian.

Gaskoinen artean ez dirudi oraino gisa hortako
abiamentik edo berritzapen gutienik ere baden, nun
ez diren halere euskal olde berri horren aurka edo
kontra jartzen hoietanik zenbait.

Egia erran, Gaskoin hauien eremuetan, B.A.B.
alde eta inguruetan ez da euskaldun edo euskota-
rentzat barmekaldean abiatua den lan krisiarik, ez
beraz hanbat behar sozial berri baitezpadakorik,
enplegua nehoiz baino indartsuago eta berrituago
baitute hoiek hor; salbuespen batzuez kanpo

Euskaltasuna indartzen

Euskal jendearen artean segurik, euskaltasuna-
ren labea bederen hasia da poliki berotzen. Antzer-
ki berri, kanta berri, liburu berri, euskarazko
irakaskuntza berri (ikastolak) Elizaren aldetik eus-
karazko elizkizun berri, komunikabide berri (euskal-
dun irratia), lanbide berri (kooperatibak),
euskarazko gau eskolen hedatze berri eta
abar...dudarik ez da euskal nazionalista berriak ez
daudela lo! Hoiende buruak goi ikasketetan ibiliak
guti edo aski, gehienetan Euskal herritik kanpo.
Belaunaldi berri berri baten itxuratan, hor dira sail
askotan sartuak eta beraz, beren ustez, doi bat
artoski ipar Euskal Herriaren berritzen hasiak ira-
kaskuntzan, kultura bide berrietan, lantegigintzan.

Azpirarratzekoa ere Baionatik bereziki iragai-
ten diren irakasle eta irakaslek jakintzagune ezin
hobeak aurkituko dituztela azkenean herri-liburu-

tegieta nola nola, molde berezi batez, Euskal
Museokoan.

“Gu gira Euskadiko gazteri berria” geroz eta
ezpain gehiagotan da, Espainol Estaduan frankiz-
moa azken hatsetarat ari azkenean (1977). Iparral-
dean euskal atzarpen intelektuala bidean da.
Euskal Herriaz ez dira gehiago eruditoak –*kultura
bitartekari* hoiek– bakarrik mintzo, bainan beste
hoiek ere, hauk frantses nazionalismoari bizkarrez,
euskal nazionalismo ez oraino hanbat definitutik ari
nahi dutenak.

Iparraldeko bizi sozio kulturalaz zer ikuspegi ere
duten hor badakigu. Egia errateko, aski hertsia
bezain kementsua, aterabide bakarra euskal nazio-
nalismoaren baitan jartzen dutela gutiz gehienek.
Alabain frantses Estadua sekulan baino hetsiago
dago, ezin mugituan, ipar Euskal Herriaren kultura
beharreri, izan euskarazkoeri edo berdin gaskoinez-
koeri. Gatazkek edo konfliktuek ez dute beranduko
Estaduaaren eraikidurak zaintzen dituztenen eta
borrokan gehienik aintzinatzen direnen artean.
Hegoaldetik datozen iheslarien ikur biziak ere hor
nun nahi hirietan bezala herrixka ttipienetan ere.

Idazle, ikerlari, antzerkilari, kantari eta abarren
tematika arras oraikotua bezala dugu aldi honetan
eta beti dabil euskal gaien inguruan, hauk guti
edo aski euskal ikuspegi nazionalista batetik hartu-
rik. Eugène Goyheneche-k jada bere *Notre terre
basque* (gure euskal lurra-1961) liburuarekin, gero
Jean Louis Davant-ek *Histoire du Pays Basque* (Eus-
kal Herriko Historia-1970) rekin, edo Jean Harits-
chelhar-ek Philippe Veyrin-en *Les Basques*
(*Euskaldunak, Euskotarrak-1975*) obrari jarriko dion
eranskinak ere –denek betan– ez ote duten gehie-
nik agertzen euskal izaeraren berritzapen zer bait
alde hortarat?

Bainan hargatik ezer aldatuko ahal ote da ipar
Euskal Herriko sozio kultura bizi hobetzeko? Ez
dirudi gogoak hortan direnik oraino, frantses agin-
tzaritzak hor berez dituen erespontabilitateek edo
ardurek bide berri zer bait ideki ahal izateko, konfli-
ko bideak aintzinetik edo aurretik ikusiz eta bazter-
tuz ahal den neurri guzian.

Gatazka idekian

Ipar Euskal Herria sozio kultural aldetik gatazka
bidetan sartua denaz geroz, izanen da beraz giza
zientzietakoentzat nun zer neurtu. Antropologia iker-
keta oro dira baliagarri euskal kulturaren egoera
berria bere gatazkarekin hurbildik ez badute har-
tzen ere. Hala nola Sandra Ottek Zuberoko Santa
Graziko herriaz agertzen deraukuna (*The circle of
mountains-1993*) edo Fernandes de Larrinoak
*nekazal gizartea eta antzerki herrikoa Pirineotako
haran batean* (1993) deitu ikerketa. Bainan hor dira
bereziki hemen argitara emaiten dugun Euskal
Herriko gatazka horren alde zenbait mirailen edo
izpilluan ezarriko dituzten lanak. Georges Balandier
dinamismoaren antropologia sailaren sortzaileak
jada errana digu:

“Bere baitako batasuna duen kultura bat eta hau ongi oinarritua bada ere, bestelako kultura gaizki oinarritu eta bere baitako batasunik gabeko bat izaitera aldatzen denean, hor sortzen dira konfliktu egoerak.” (frantsesetik itzulia) Balandier Georges. *Sens et puissance*. Quadrige. PUF Paris. 1971

Aipa ditzagun beraz gehienbat gatazka horren berri sistematikoki eta orokorki agertzeko, antropologiaren sailetik ibili diren zenbait ikerlanen egileak: Denis Peaucelle ek: *Analyse d'une communauté rurale basque. Larran en Haute Soule*. (Baseritar erkidego baten analisisa: Larrane, Basaburian), Pierre Bidart Baigomiar soziologo eta etnologoak bere herriaz emanen dauku 1977an *Le pouvoir politique à Baigorri, village basque (Botere politikoa Baigorri, euskal herrian)* ikerketa nagusia eta ondotik 1980an *La nouvelle société basque. Ruptures et changements* (Euskal gizarte berria, haustura eta aldakuntza). Pierre Charritonek Kebek aldean egiten duen egonaldian ez du Euskal Herria ahanzten eta 1979 erako onutzen digu *Le droit des peuples à leur identité* (Herriek beren nortasunaren ukaiteko duten eskubidea) antropologiaren aldetik arakatzeko dituegai korapilatsu horren alde asko.

Tèrexa Lekunbernik, ofizioko etnologo gisa, ekarzen digu 1980an *Femmes basques et société contemporaine. Rupture et continuité* bere tesia (Euskal emazteak eta orainko gizarteak. Haustura eta jarraipen).

Guhaurek, lan artetik burutu etnologiako tesian, nahiz beste gai bizi baten inguruan, agertu ginuen 1995an *Culture basque et urbanisation à Hasparren* (euskal kultura eta urbanisazioa Hazparren) deitu lana, aski ikusia genuela herri hortan kulturako konfliktu batzuek hartzen duten lekua.

Ikusten denez, iparraldean, bertako gizon edo andre bakar batzuek jakin izan dute hogoigarren mendeko azken laurdenean iparraldeko egoera sozio kulturalaren alde zenbaiten inguratzen antropologiaren behakoaz, nahiz ez diren denak osoki ikuspegi berdinean kokatzen. Bestalde, aski ohargarria antropologiako lan hoiek ipar Euskal Herriko egoera sozio kulturala handizki konfliktu sartzeko den unean abiatzen edo argitaratzen direla. Hemen, batzuen ustez, euskal nazionalismoaren bideak ez du norabide onik “autoktonia” batean sartzeaz besterik, beste batzuentzat konfliktu etan izatea biziaren eta garapenaren seinale da. Bainan denek aitortzen dute iparraldeko kultura, handik eta hemendik jasaiten dituen bultzada ezberdinen gatik ere, izan dituen ekonomikoak, demografikoak, sozialak edo politikoak, “mestisaia” edo kurutzamen bidean sartua dela gerok eta gehiago. Arrazoin doble bere berezko erakidurak ukan ditzan, haatik bortxa eta bortizkeriatik joatea ez baita denentzat bide segurua, nun ez den iriskua hartu nahi deplauki erraiteko edozoin bide dela ona, menperatzaile batzuek ere batzutan hala egiten dutelakoan berdinean...

Bururatzeko

Lan asko falta da oraindik ipar Euskal Herriaren egiazko egoera sozio kulturala ponduz pondu edo sailez sail hobeki argitzeko, hanbat alde baitira orai-

no erdi ilunean geldituak, hala nola zer den Euskal Herriar izaita gaurko egunean, ean euskal nazionalismoaren bidez besterik ez ote den hemengo herri-arazoen edo problemen argitzeko, finkatzeko eta azkenean lasterrenik gaintzeko. Galdera asko beraz oraino oraino eta geroko antropologo edo etnologoentzat. Bainan aitortu behar zer leku gutia duen oraino antropologia sozio kulturalak ere iparraldeko erakundetan (boteregune ala fakultatetan, komunikabideetan ala argitaldaritzan eta kazetaritzan, izaitaketaz ere soziologiari gaina utziz). Ez da beraz harritu behar Euskotar ala Euskaldunek berek Euskal Herriaren problematika berriaz hain axaleko ezagutza dutela ere.

Gure partetik saiatu gara ikusmira luze batean XX. mendean ipar Euskal Herriko kultura bereziki izan den garapenaren aztertzen. Mende erdia iragantxe arte zoin hertsiki lotua izan den *kultura biartekari* eraginez, alde batetik XIX. mendeko etnia ikuspegiari, berdin gaskoin izatera bazter utziz nahitarat bezala eta nola XX. mende horren azken laurden aldetik honararatu –krisi ekonomikoak ere areagotuz doatzila– ipar Euskal Herri barnekaldean euskal nazionalismoaren bidea ideki den, ustez aterabide tarat joaiteko. Bide hau ez baita konfliktu edo korapilatu gabe, gerok eta gehiago onartzen balinbada ere ipar Euskal Herriaren kultura gerok eta nahastikatuago dela, handik eta hemendikako hainbeste haren eta bultzaden gatik baidik ez bada ere.

BIBLIOGRAFIA

- BALANDIER Georges. *Sens et puissance*. Quadrige. PUF Paris. 1986. 334 or
- Anthropologie politique*. 1967 d°. 240 or
- CUISENIER Jean et SEGALIN M.
- Ethnologie de la France*. PUF Paris 1977. 127 or
- LEDROT R. *Espace social de la ville*. Anthropos, Paris. 1968. 370 or
- BOISSEL W. *Hommage à Bayonne et au Pays Basque*. Edition du Musée Basque. Baiona 1933. 101 or
- VEYRIN Ph. *Les Basques de Labourd, de Soule et de Basse Navarre, leur histoire et leurs traditions*. Artaud. Grenoble 1955. 340 p.
- CHARRITON P. *Le droit des peuples à leur identité*. Montréal 1979. Fides. 218 or
- CHAUVIREY M.F. *La vie quotidienne au Pays Basque sous le second Empire*. Paris 1975. Hachette. 202 or
- ETXEZARRETA Miren. *El caserío vasco*. Bilbao 1971. Fundacion C. De Iturriaga y Dna de Donabaitia. 412 or
- GOYHENECHÉ Eugène. *Le Pays Basque (Soule, Labourd, Basse Navarre)*. Pau 1979. Sté nouvelle d'éditions régionales de diffusion. 671 or

- HARITSCHELHAR J. "Le Pays Basque en mutation" in: *Les Basques*. Philippe Veyrin. Toulouse, Privat. 1975.
- (S/ s la direction de). *Etre Basque*. Toulouse 1983. Privat 492 p.
- ITHURRIAGUE Jean. *Visages du Pays Basque*. Horizons de France. Paris 1942.
- LABORDE P *Pays basque et Pays landais à l'extrême S.O. de la France*. Bordeaux 1979. Institut de Géographie. Université de Bordeaux III 3 tomes.
- PEILLEN D. "L'œuvre de P. Larramendi S.J. Cristallisation de mythes historiques culturels basques" in *Bulletin du Musée Basque* 1987 p.p. 151-156.
- SAN MARTIN J. *Gure herriko gauzak*. Donostia 1977. Caja de ahorros provincial de Guipúzcoa. 458 or.
- IFOREP (Les cahiers de) *Euskal Herriak. Pays Basque* N° 2. Langue, culture, identité. Paris 1988
- TORRE José Miguel. *Historia del País Vasco norpirenaico*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao 1976. 2 tomo.